


**SARRERA. ESTATU ESPAINIARRAREN TRIBUTU SISTEMA:
ERREGIMEN KOMUNA ETA FORU ERREGIMENA.**

ZERGA SISTEMA ESTATU ESPAINIARREAN



TRIBUTU ERREGIMENA LURRALDE KOMUNEAN

Espainiar lurralde osoa salbu eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba y Nafarroa.

ZERGA-BILKETA ← AGENCIA TRIBUTARIA TRIBUTUEN ARLOKO
GORTE OROKORRAK LEGEDIA

Aplikazio-eremua: lurralde komun osoa.

Lurralde horretan arauak berdinak dira.

Arauen izenak:

- a) PFEZaren legea
- b) BEZaren legea
- c) SZaren legea

Non argitaratzen dira:

Boletín Oficial del Estado

LURRALDE KOMUNEKO ERREJIMEN FISKALA (AUTONOMIA ERKIDEGO EZ FORALAK)

Ley Orgánica de Financiación de las Comunidades Autónomas (LOFCA)

Laugarren artikulua.

Bat. [...], autonomia erkidegoen baliabideak ondokook osatuko dituzte:

- a) Beren ondaretik eratorritakoak eta zuzenbide pribatuko gainontzekoak.
- b) Beren berezko tributu, tasa eta kontribuzio bereziak.
- c) Estatuak, osorik edo zati batean, lagatako tributuak.
- d) Oinarrizko Zerbitzu Publikoak bermatzeko Funtsean parte hartzeagatik jasotakoak.
- e) Estatuaren tributuen gainean ezar litezkeen errearguak.
- f) Legeek ezarritako mekanismo eta funtsen bidez Estatuaren diru-sarreretan dauzkaten parte hartzeak.
- g) Kreditu-eragiketen emaitza.
- h) Haien eskuduntzen barnean ezarritako isun eta zigorren emaitza.

i) Haien prezio publikoak

Hamaikagarren artikulua

Autonomia Erkidegoei, Lege honek ezarritako baldintzetan, ondoko tributu hauek baino ezin zaizkie laga:

- a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, zati batean, %50ko mugarekin.
- b) Ondarearen gaineko Zerga.
- c) Ondare Eskualdaketak eta Ekintza Juridiko Agiridunen gaineko Zerga.
- d) Jaraunspen eta Emarien gaineko Zerga.
- e) Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zati batean, %50ko mugarekin.
- f) Fabrikazio Zerga Bereziak, Elektrizitatearen gaineko Zerga salbu, zati batean, %58ko mugarekin haietako bakoitzarentzat.
- g) Elektrizitatearen gaineko Zerga.
- h) Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga.
- i) Jokoaren gaineko Tributuak.
- j) Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zerga.

Hemeretzigarren Artikulua.

Bi. Lagatako tributuen kasuetan, Autonomia Erkidego bakoitzak, tributuak lagatzeko Legeak ezarritako terminoetan, ondoko eskuduntza arau-egileak hartu ahal izango ditu:

- a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, gutxieneko pertsonal eta familiarraren finkapena eta zerga-eskala eta kuotatiko kenkarien zehaztapena.
- b) Ondarearen gaineko Zergan gutxieneko salbuetsia eta zerga eskala, kenkariak eta hobarien zehaztapena.
- c) Jaraunspen eta Emarien gaineko Zergan, zerga oinarriaren murrizpenak, eskala, aldeztatik egondako ondarearen zenbatekoa eta koefizienteak, kenkariak eta hobarien zehaztapena. Halaber kudeaketa arautu ahal izango dute.
- d) Ondare Eskualdaketak eta Ekintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergan

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN
TRIBUTU-ERREGIMENA

Bizkaia

Legegintza

Bizkaiko Batzar
Nagusiak

Zerga-bilketa

Bizkaiko Foru
Ogasuna

Gipuzkoa

Legegintza

Gipuzkoako Batzar
Nagusiak

Zerga-bilketa

Gipuzkoako Foru
Ogasuna

Araba

Legegintza

Arabako Batzar
Nagusiak

Zerga-bilketa

Arabako Foru
Ogasuna

Zergen arloko arauen izenak:

- a) PFEZaren Foru Araua
- b) BEZaren Foru Araua

Aplikazio-eremua:

Zein bere lurraldean.

Non argitaratzen dira:

Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialetan

ONDORIOAK:

- a) Lurralde komun osoan tributuen arloan arau berberak daude indarrean eta zerga horien bilketa Espainiako Agencia Tributaria delakoak egiten du (lagatako zergen kasuetan salbu).
- b) Foru lurraldeetan indarrean daude lurralde horietako bakoitzak eman dituen Tributu Arauak.
- c) Foru lurralde bakoitzean bere Foru Ogasunak bere zergak biltzen ditu.
- d) Gobernu Zentralak ez du zergarik biltzen foru lurraldeetan.

ZER PUNTURAINO HELTZEN DA FORU LURRALDEETAKO INSTITUZIOEK ARAUAK EGITEKO ETA ZERGAK BILTZEKO DAUKATEN ESKUDUNTZA?

Ekonomia Itunean agertzen da.

Ekonomia Itunak, kasuz-kasu, zerga bakoitzean arauak nork egiten dituen eta zergak nork biltzen dituen esaten du

Ekonomia Itunak legedi bien arteko (Estatua eta Foru Lurraldeak) lotura puntuak ere ematen dizkigu.

Pertsona bat Lurralde komunean bizi bada baina Foru Lurraldean lan egiten badu, bere zergak ordaintzeko orduan, zer araudi hartu behar du kontuan? Eta nori ordaindu behar?


Egoera hauek guztiak Ekonomia Itunean argitzen dira, kasu guztietarako irizpidea emanez.

EUSKO JAURLARITZA

Zein da Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarraren papera tributu-arauak sortzean eta zergak biltzean?

Oro har, bat ere ez: tributu-administrazioen arteko koordinaziorako erakundeetan duen parte-hartzea salbu.

Administrazio eskudunak Foru Institutzioak dira, zein bere lurraldean



EKONOMIA ITUNA: IKUSPEGI OROKORRA

12/2002 LEGEA

Ekonomia Itunaren zuzenbide marko positiboaren oinarria Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria da. Izan ere, xedapen hori dela medio foru lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dira.

Konstituzioaren agindua betez, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaz onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak arlo horretako printzipio nagusia finkatu du: euskal lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren zerga sistema eduki, finkatu eta arautu ahal izatea.

Aipatu testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoaren lehen Ekonomia Ituna maiatzaren 13ko 12/1981 Legez onartuta geratu zen. 2001eko abenduaren 31ra arteko iraupen mugatua finkatu zen Itunerako, Arabako probintziarekiko Itun eragilearekin jokatu zen bezala.

[...] Ekonomia-Ituna MUGAGABEA IZANGO DA aurrerantzean [...]

Artikulu bakarra.

Onarturik geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna, Euskal Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 41. artikuluan aipatzen dena, lege honek eranskinean finkatutakoari jarraituta

ZERGATIK DA ARTIKULU BAKARREKO LEGEA?

Akordioaren izaeragatik: Ekonomia Itunaren atzean euskal administrazioak eta administrazio zentralaren arteko akordioa dago. Gorte orokorrek, beraz, zera egiten dute: aldez aurretik adostutakoa baieztatu

EKONOMIA ITUNAREN EDUKIA

Lehenengo kapituluan arau orokorrak aipatzen dira: eskuduntzak norenak diren, tributu-sistemaren oinarriak, etab.

Hortik aurrera kapitulu bakoitzak zerga batez hitz egiten du.

ZENBAIT OHAR LEHENENGO KAPITULUAREN INGURUAN

1. artikulua. Lurralde historikoetako erakundeen eskumenak.

Bat. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, bakoitzak bere lurraldean, zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautzeko ahalmena izango dute.

Bi. Lurralde historikoetako zerga-sistema osatzen duten zergak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea foru-aldundiei dagokie, bakoitzari bereak.

2. artikulua. Printzipio nagusiak.

Bat. Lurralde historikoek ezarriko duten zerga-sistemak printzipio hauek bete beharko ditu:

Lehenengoa. Elkartasunarekiko begirunea behar da, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan zehaztutako moduan.

Bigarrena. Estatuko zergen egitura orokorra kontuan izan behar da.

Hirugarrena. Estatuarekiko koordinazioa, zerga-sistemen harmonizazioa eta lankidetz

Laugarrena. Lurralde historikoetako erakundeen arteko koordinazioa, zerga-sistemen harmonizazioa eta elkarrekiko lankidetzak.

Bosgarrena. Estatu espainiarrak izenpetuta eta berretsita dituen nazioarteko itun edo hitzarmenen menpe egon behar da zerga-sistema.

3. artikulua. Zergak harmonizatzea.

Zerga-arauak sortzeko orduan, lurralde historikoek:

- a) Zergei buruzko Lege Orokorraren arabera egokitu behar dituzte terminologia eta kontzeptuak.
- b) Benetako zerga-presio orokorra Estatuko gainerako lekuetan dagoenaren parean mantendu behar dute.
- c) Espainiako lurralde osoan pertsonen joan-etorri askea eta pertsonak kokatzeko askatasuna errespetatu eta bermatu behar dira, baita ondasunen, kapitalen eta zerbitzuen joan-etorri askea ere. Ezin da bazterketarik gertatu; ezin dira enpresen lehiatzeko aukerak murriztu; eta ezin da baliabideen asignazioan distortsiorik eragin.
- d) Jardueren sailkapenak direla-eta, abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arte arloetan, lurralde erkidean erabiltzen den sailkapen berbera erabili behar dute, nahiz eta sailkapen zehatzagoa egiteko aukera eduki.

5. artikulua. Estatuarenak bakarrik diren eskumenak.

Honako eskumen hauek estatuarenak bakarrik dira:

Zerga Berezien eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren barruan, inportazio-eskubideak eta inportazio-kargak arautzea, kudeatzea, ikuskatzea, berrikustea eta biltzea

Hortik aurrera, Ekonomia Itunak eskumenen banaketa zergaz zerga aztertzen du, bai araudiari begira bai diru-bilketari begira.

Adibide batzuk ikus ditzagun:

2. atala. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

6. artikulua. Aplikatu beharreko arauak eta Zergaren ordainarazpena.

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga itundutako zerga da eta araudi autonomoari lotuta dago. Lurraldearen arabera, eskumena daukan foru-aldundiari dagokio zerga hori ordainaraztea, baldin eta subjektu pasiboaren ohiko bizilekua Euskadin badago


3. atala. Sozietateen gaineko zerga

14. artikulua. Aplikatu beharreko arauak.

Bat. Sozietateen gaineko Zerga itundutako zerga da, eta araudi autonomoaren pean egongo da zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan

ETA HORRELA, BANAN BANAN, ZERGA GUZTIAK AZTERTZEN DITU

ZERGA SISTEMAREN IKUSPEGI OROKOR BAT



OINARRIZKO KONTZEPTUEN AURKEZPENA: TRIBUTU FORU ARAU OROKORRA

16. artikulua. Kontzeptua, helburuak eta tributu motak.

1. Tributuak sarrera publikoak dira, hau da, foru arauak tributatzeko betebeharrarekin lotzen duen izatezko egoera gertatzeagatik herri Administrazio batek exijitzen dituen diru prestazioak, gastu publikoei aurre egiteko beharrezkoak diren sarrerak lortzea funtsezko helburu dutenak.

Gainera, tributuak politika ekonomiko orokorraren tresna gisa ere erabili daitezke gizartearen egonkortasuna eta aurrerapena lortzeko eta errenta hobeto banatzeko.

2. Beren izena zeinahi dela ere, tributuak honela sailkatzen dira: tasak, kontribuzio bereziak eta zergak.

a) Tasak ondoko zerga-gaia duten tributuak dira: herri jabariaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, eta zergapekoari modu partikularrean egokitu, eragin edo mesede egiten dioten zerbitzu prestazioak edo jarduerak zuzenbide publikoko erregimenean eman edo egitea, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek zergapekoek beren borondatez eskatu edo jasotzekoak ez badira edo sektore pribatuak eman edo egiten ez badituzte.

b) Kontribuzio bereziak ezartzen dira zergapekoak onura bat lortzen duenean edo bere ondasunen balioa handitzen denean herrilanak egiteagatik edo zerbitzu publikoak ezarri edo zabaltzeagatik

c) Zergak kontraprestaziorik gabe exijitzen diren tributuak dira, eta beren zerga-gaia zergadunaren ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten negozio, egintza edo gertakariak eratzen dute.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Foru arau honek Bizkaiko Lurralde Historikoaren tributu sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu.

2. artikulua. Tributu sistemaren ordenamendu eta aplikazioaren printzipioak.

1. Tributu sistemaren ordenamendua tributuak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan oinarritzen da, eta printzipio hauek ditu gidari, justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitatea, zama tributarioaren banaketa egokia, eta ez-konfiskatorietatea.

2. Tributu sistemaren aplikazioak proportzionaltasuna, eraginkortasuna eta obligazio formalak betetzeak dakartzan zeharkako kostuen mugapena izango ditu printzipio gidari, eta zergapekoen eskubide eta bermeak errespetatzen direla ziurtatuko du.

3. artikulua. Zerga alorreko ahalmena.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoaren tributu erregimena mantendu, ezarri eta arautzeko hasierako ahalmena Batzar Nagusiei dagokie, eta Ekonomia Itunean jasotakoari jarraiki erabiliko da

6. artikulua. Ordenamendu tributarioaren iturriak.

1. Tributuak, jatorria eta izaera edozein dutela ere, honako hauek aintzat hartuz arautuko dira:

a) Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta Ekonomia Ituna.

b) Eusko Legebiltzarrak koordinaziorako, zerga harmonizaziorako eta lurralde historikoetako erakundeen arteko lankidetzarako eman ditzakeen arauak.

c) Foru arau hau, tributu bakoitzari buruzko foru arauak, eta zerga alorreko xedapenak jasotzen dituzten gainerako foru arauak.

d) Aurrekoak garatzeko ematen diren erregelamenduak eta, udaletako zergen esparruan, tokian tokiko ordenantza fiskalak.

2. Zerga izaerako klausulak dituzten nazioarteko itun edo hitzarmenak eta, bereziki, ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenak, aplikagarriak izango dira barne ordenamendu juridikoaren parte direnean.

3. Europar Batasunak eta nazioarteko nahiz nazioz gaindiko beste erakunde batzuek zerga alorreko eskumenak edukitzeagatik ematen dituzten arauak aplikaziozkoak izango dira.

4. Zuzenbide Administratiboko xedapen orokorrak eta zuzenbide arruntekoak ordeko izaeraz aplikatuko dira.

7. artikulua. Zerga alorreko foru arauaren erreserba.

Ondorengoak foru arau bidez arautuko dira beti:

a) Zerga-gaia, sortzapena eta oinarri ezargarri eta likidagarria mugatzea, karga tasa eta zerga zorraren zenbatekoa zuzenean erabakitzen duten elementuak finkatzea, [...]

b) Zergen ikuspegitik konturako ordainketak egitera behartzen duten kasuak.

c) [...] zergapekoak eta beren erantzuleak zehaztea.

d) Salbuespenak, murrizpenak, hobariak, kenkariak eta gainerako zerga onura edo pizgarriak ezarri, aldatu, kendu eta luzatzea

9. artikulua. Zerga arauen denbora eremua.

1. Zerga arauak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu ondorengo hogeiei egun naturalen buruan jarriko dira indarrean, haietan bestelakorik adierazten ez bada behintzat, eta denbora mugarik gabe aplikatuko dira, epe jakin bat finkatzen denean izan ezik.

2. Kontrakoa xedatzen ez bada, zerga arauak ez dute atzerako eraginik izango, eta aplikagarriak izango zaizkie bai haiek indarrean sartu ondoren sortzen diren zergaldirik gabeko tributuei eta bai zergaldia une horretatik aurrera hasita duten gainerakoei.

20. artikulua. Zerga-gaia.

1. Zerga-gaia tributu bakoitza taxutzeko foru arau bidez finkatzen den gertakizuna da. Berau gauzatzeak tributu obligazioa sortzen du.

21. artikulua. Salbuespenak.

Salbuespen kasuak gertatzen dira tributu obligazio nagusia erabat edo partzialki bete behar ez denean foru arau bidez hala ezarri delako, zerga-gaia egon arren.

22. artikulua. Sortzapena eta exijigarritasuna.

1. Zerga-gaia zein unetan jotzen den gauzatutzat eta zerga obligazio nagusia noiz sortzen den, une hori da sortzapena, non eta tributu bakoitzaren foru arauak beste uneren bat finkatzen ez duen.

Tributu obligazioa konfiguratzeko garrantzitsuak diren zirkunstantziak sortzapen datak erabakitzen ditu, non eta tributu bakoitzaren foru arauak bestelakorik xedatzen ez duen.

2. Ordaindu beharreko kuota, edo haren zati bat, sortzapenarena ez den beste une batean exijitu daitekeela ezarri ahal izango du tributu bakoitzaren araudiak

35. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Zerga obligazio nagusia eta hari dagozkion obligazio formalak bete behar dituen zergapekoa da subjektu pasiboa.

47. artikulua. Zerga helbidea.

1. Zerga Administrazioarekiko harremanetan zergapekoa kokatzeko aintzat hartzen den lekua da zerga helbidea.

2. Zerga helbidea honako hau izango da:

a) Pertsona fisikoentzat, beren ohiko bizilekua.

b) Pertsona juridikoentzat eta Sozietateen gaineko Zergari lotutako gainerako entitateentzat, sozietatearen helbidea, baldin eta beren negozioen kudeaketa

administratiboa eta zuzendaritza bertan zentralizaturik badaude. Beste edozein kasutan, kudeaketa edo zuzendaritza hori non egiten den hartuko da kontuan

48. artikulua. Oinarri ezargarria: kontzeptua eta kalkulurako metodoak.

1. Oinarri ezargarria zerga-gaia neurtu edo baloratu ondoren lortzen den diruzko zein beste mota bateko magnitudea da.
2. Ondorengo metodoak erabiliz kalkula daiteke oinarri ezargarria:
 - a) Zuzeneko zenbatespena.
 - b) Zenbatespen objektiboa.
 - c) Zeharkako zenbatespena
3. Oro har, oinarri ezargarriak zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez kalkulatu dira. Dena den, foru arau batek finkatu ahal izango du zein kasutan izango den aplikagarria zenbatespen objektiboaren metodoa, zergapekoentzat beti borondatezkoa izango dena

49. artikulua. Zuzeneko zenbatespenaren metodoa.

Zergadunak eta Zerga Administrazioak tributu bakoitzaren araudian ezarritakoari jarraiki erabili ahal izango dute zuzeneko zenbatespenaren metodoa. Ondorio horietarako, Zerga Administrazioak erabiliko ditu aurkezten diren aitorten edo agiriak, administratiboki egiaztatutako liburu eta erregistroetan adierazitako datuak eta zerga obligazioaren elementuekin zer ikusia duten gainerako dokumentu, datu eta frogagiriak

50. artikulua. Zenbatespen objektiboaren metodoa.

Oinarri ezargarria tributu bakoitzaren araudian aurreikusitako magnitude, indize, modulu edo datuak aplikatuz kalkulatzeko erabili ahal izango da zenbatespen objektiboaren metodoa

51. artikulua. Zeharkako zenbatespenaren metodoa.

1. Zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatuko da oinarri ezargarria bere osoan kalkulatzeko beharrezkoak diren datuak Zerga Administrazioak eskuratu ezin dituzenean honako zirkunstantzia hauetako bat dela eta:
 - a) Aitorpenak ez aurkeztea edo aurkeztutako aitorpenak osagabeak edo zehaztugabeak izatea.
 - b) Ikuskatzaileen lanari aurre egitea, trabak edo aitzakiak jartzea edo uko egitea.
 - c) Kontabilitate eta erregistro obligazioak ez betetzea, eta hori oztopo izatea zergadunak zerga ondorioekin burutu dituen egitate, egintza edo eragiketarako modu argi, fidagarri eta konparagarrian ezagutzeko.

d) Kontabilitate eta erregistro liburuak edo horietan idatzitako eragiketen frogagiriak desagerrarazi edo suntsitzea, ezinbesteko kasuetan bada ere

52. artikulua. Oinarri likidagarria.

Tributu bakoitzaren foru arauan ezarritako murrizpenak oinarri ezargarriari aplikatzen den magnitudea da oinarri likidagarria.

53. artikulua. Karga tasa.

1. Kuota osoa lortzeko, oinarri likidagarriari aplikatzen zaion zifra, koefiziente edo portzentajea da karga tasa

54. artikulua. Tributu kuota.

1. Zerga kuota honela kalkulatu da:

a) Oinarri likidagarriari karga tasa aplikatuz.

b) Propio adierazten den kantitate finko baten arabera.

5. Kuota likidoa kuota osoari tributu bakoitzaren foru arauan aurreikusitako murrizpen, hobari, gehiketa edo koefizienteak aplikatuz lortuko da.

6. Kuota diferentziala kuota likidotik kenkariak, ordainketa zatikatuak, atxikipenak, konturako sarrerak eta kuotak tributu bakoitzaren araudian ezarritakoaren arabera gutxitu ondoren aterako da.

ZERGA MOTAK

Tributurik garrantzitsuenak **ZERGAK** dira.

Hauek, normalean, bi eratara sailkatzen dira:

- a) Zuzenak eta Zeharkakoak.
- b) Progresiboak, Proporzionalak eta Erregresiboak.

1. Lehenengo sailkapena: zuzenak eta zeharkakoak.

Administrazio batek zerga bat kobratzen dugunean, gure **AHALMEN EKONOMIKO**Aren arabera kobratzen digu. Baina Administrazio horrek ez daki zein den gure ahalmen ekonomikoa, guk erakutsi behar diogu. Eta bi modutan erakutsi ahal diogu:

ZUZENEAN: errenta eskuratzen dugunean edo ondarea daukagunean.

ZEHARKA: dirua gastatzen dugunean.

Eta hor agertzen dira zergak:

Gure ahalmen ekonomikoa **ZUZENEAN** erakusten dugunean, zerga zuzenak ordaindu beharko ditugu: PFEZ, SZ, OZ

Gure ahalmen ekonomikoa **ZEHARKA** erakusten dugunean, zeharkako zergak ordaindu beharko ditugu: BEZ

2. Sailkapena: progresiboak, proporzionalak eta erregresiboak

Sailkapen hau ikusi baino lehenago, **ezarpen tasa** zer den azaldu behar dugu.

Normalean, gobernuak zergak kobratzen dizkigunean ez digu kopuru finko bat eskatzen, gure errentaren portzentaje bat baizik. Portzentaje horri ezarpen tasa esaten zaio.

Esate baterako, gure errenta 1.000€koa balitz eta gobernuak %10a kobratuko baligu, kasu honetan ezarpen tasa % 10a litzateke

Errenta handitzean (murriztean) ezarpen tasa ere handitzen (murrizten) bada zerga bat **progresiboa (erregresiboa)** dela esango dugu. Hau da, zerga progresibo (erregresibo) baten aurrean gure errenta zenbat eta altuagoa izan orduan eta handiagoa (txikiagoa) izango da gure errentatik ordaindu behar dugun ehunekoa.

ERRENTA	EZARPEN TASA	ORDAINTZEKOA
1.000	%10	100
1.500	%12	180
2.000	%15	300
2.500	%17	425

Adibidea: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

Errenta handitzean ezarpen tasa berdin mantentzen bada, zerga bat **proporzionala** dela esango dugu.

Honek ez du esan nahi errenta handitzean gero eta gehiago ordaintzen ez dugula. Nahiz eta portzentaia beti berbera den, errenta zenbat eta handiagoa izan, orduan eta kopuru handiago bat ordainduko dugu, baina proporzioa ez da handitzen

ERRENTA	EZARPEN TASA	ORDAINTZEKOA
1.000	%10	100
1.500	%10	150
2.000	%10	200
2.500	%10	250

Adibidea: Sozietateen gaineko Zerga (SZ)

ZERGEN SAILKAPEN GEHIAGO:

a) Zerga pertsonalak eta produktuarenak

1. pertsonalak: haien zerga egitatea pertsona bati begira ezartzen denean (fisikoa edo juridikoa), pertsona horrek duen ondarea edo errentaren arabera.

2. produktuarenak: haien zerga egitatea ondasun bati begira ezartzen denean. Adibidez: ibilgailuen zirkulazio zerga.

b) Subjektiboak eta objektiboak

1. subjektiboak: zergadunaren inguruabar pertsonalak kontuan hartzen direnean (seme-alabarik duen ala ez, adibidez).

2. objektiboak: zergadunaren inguruabar pertsonalak kontuan hartzen ez direnean

c) Jarraituak eta unean-uneakoak:

1. Jarraituak: zerga egitatea denboran zehar etengabe errepikatzen denean (adibidez errentak eskuratzea)

2. Unean unekoak: zerga egitatea ekintza isolatua denean, denboran errepikatzen ez dena (adibidez kotxe bat erostea).

ZERGA GEHIENAK LIKIDATZEKO BALIO DUEN ESKEMA

ZERGAK LIKIDATZEKO ESKEMA OROKORRA

